

Mikroipun erotikoen "masterra" Lemoako Gaztetxean

12. orrialdea

Zertu Kultur Elkartearen Batzar Orokorra egin da

Zertuko zuzendaritza batzorde barria zezeilaren 10ean, urteko Batzar Orokorrean onartu zan. Batzarrean, 2011ko kudeaketearen eta 2012rako egitasmoen barri be emon eben presidenteak, diruzainak eta idazkariak. Aurten 10 urte beteko dauz BEGITUK aprilean. 13. orrialdea



Zaletuak Lemoa Txirrindulari Elkartearen sortu dabe

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu
arratia ubide zeberio

158

2012ko zezeilaren 16a
hamabostekaria
www.begitu.org

Prozesionaria ugari aurten

Aurten prozesionaria ugari dago. Izan be, Mediterraneo klimako mamarroa da eta egin dauan negu epelak eragina izan dau horretan.

Asko ugaritu da eta horixe da gure basoak momentu honetan daukien gaixotasunik larriena.

Gainera, pinuaren egurraren prezio bazuak be pinuaren errentagarritasuna gixitu dau.

Arratian pinudiak basoen % 60 osotuten dabe. Beraz, monokultibo honek arazoren bat badauka, basogintzeak arazo bat dauka gurean.

Aspaldi honetan, dana dala, basoari errentagarritasuna aterate-

ko beste modu batzuk dabiz bultzatzen erakundeak. Alde batetik turismoa eta horregaz lotutako jarduerak. Horretarako biodibersitatea eta paisajea ezinbestekoak dira eta baso publikoetan hostozabal hektarea asko landatu dirala dino Peli Manterola Gorbeialdekoak.

Bestetik, basoari errentagarritasuna aterateko beste modu batzuk bultzatzea badago. Modu horreek biomasa eta zuraren beste erabilera batzuk izan daitezke. 8. eta 9. orrialdeak



Prozesionaria da basoak daukien gaixotasunik larriena.

ZEANURI

San Balendin



Zezeilaren 19an ospatuko dabez San Balendin jaiak Zeanuriko Eleizondan, Piedadea ermitearen iguruan. Egitarau bitxia antolatu dabe. Meza ostean, San Balendinen irudia parokiatik 50 bat metrora dagoan ermitara eroango dabe, datorren urtera arte bertan itxeko, eta jarraian ermitearen aurreko artearen neurketari ekingo deutsie. 7. orrialdea

ARRATIA

Aratusteetako programak prest

Umeak eta gazteak mozerro desfileak egingo ditue hilaren 17an barikuan. Gero, herrietan mozerro lehiaketak, desfileak eta jaiak izango dira protagonista. Igorren jaia Arratiko Zekorrek RTk, AMEk, Guraso Elkarteak, Igorreko Udalak eta Ekintza taldeak antolatu dabe eta tabernak be hartuko dabe parte. Lemoan eta Zeanurin gai bat hartuko dabe ardatz. Holan, Lemoako kiroldegiko festan mitologia izango da gaia eta Zeanurin, barriz, komikia. 5. orrialdea



ARRATIA

Zeanurin aurrekontuak onartu dabez

Zezeilaren 14an onartu ziran EAJ-PNVren aldeko botoakaz aurrekontuak Zeanurin. Bertan, zerbitzuak mantendutea, zorra amortizetea eta obra biri ekitea aurreikusten da. Lanok Zulaibarreko espaloia egin eta saneamentuko lanak jarraitutea dira. Areatzan, barriz, oraindino ez dira aurrekontuak onartu baina hileon egitea espero dau Josu Basozabal Areatzako alkateak. 6. orrialdea



ZEURE BERBEA

Arratian, parte-hartzean pausuk emoten

156. BEGITUN, urtailaren 18an argitaratuan, Arteako udala "sano pozik" agertu zan etxe guztietara bidalitako galdetegiaren erantzun mailagaz. Alberto Etxebarria alkateak gaineratu eban "jentearen parte hartzea %11 izan da. Hori parte hartze handia da, ze lgorren eta beste hainbat lekutan urteak daroetz aurrekontu parte hartzaileak egiten eta herritarren % 2 inguruk hartzean dau parte". Egia esan ez dakigu kontuak zelan atera dauzan, dakiguna da Artean etxeetara inkesta edo galdetegi bat bidali dauala eta hortik erantzun batzuk jaso eta lgorren, 150 lagunek hartu dabela parte aurrekontuetako batzarretan. Ez dot uste biak konparetako modukoak diranik.

Igorren 5 urte daroaguz aurrekontu parte hartzaileak egiten. Eskatzen beste 4 gehiago, baina aurreko gobernuak (PNV) ez ebazan egin gura, are gehiago, ezinezkoa zala esaten eban.

Igorren 4 urte daroaguz ple-noak 15ean behin egiten, herritarren mozinoak eztabaidatu, aurrekontu parte hartzaileetan auzo batzarrak egiten, galdetegiak, urigintza foroak... Bertatik ehunka igorretzar pasau dira.

Artea be aurten hasi ei da. Holan bada sano poztuten naz, ondo etorri! Garrantzitsuena, pausurik zailena emon dabelako: aurrekontu parte hartzaileak egiten hastea.

Hasiera umila izan dau, galde-tegi bat. Aurten Udal Gobernuak sano positibo balorau dauana. Honek datorren urteetan parte hartzean sakontzea ekarriko dau, aurrekontuetatik harago, Udalaren ebatzietan prozesu parte hartzaileak ezarri.

Horretarako, Arteako Udalak lagungarri dauka 2011ko garagarri-lean Arteako Bilduk aurkeztutako aurrekontuetan auzo batzarrak egiteko proposamena, ondino erantzunik jaso ez dauana. Eta laguntasuna behar izan ezker, prest gagoz lgorreko esperientzia arteaztarrai azaltzen. Geu be holan hasi ginan, galde-tzen eta probak egiten.

Parte hartzea Udaleko prozesu guztietan txertatu behar da eta landuz mamitzen joan. Amaierarik ez daukan bide baten. Igorrekoa be holan doa. Dima eta Lemoan be hasi dira parte-hartze esperientziak. Pausuz pausuz Udalaren demokratizaziorantz, erakutsiz gauzak beste era batera egin ahal dirala, egingo doguzala. Alkaterik onena, herria!

**GALDER OLIBARES
IGORRE**

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Edur-luma



Egunokaz edurra daragoio arrapa-arrapa. Antxinako denporetan lez, aste zuri-zuria ikusi eta bizitea tokau jaku. Edur-malutak ei dira goitik behera datozenak holakoetan, baina Arratian edur-lumak be esan izan jakie. Zergaitik? Edurra danean gora begiratzea besterik ez dago, halan ikusiko dira edur-lumak alde batera eta bestera jantzan; bolatxoai, oster, edur-matazak dinotsagu.

ERETXIA

Hipotekak ejekutetea, etxea itxiarazotea eta etxe duina izateko eskubidea

Gaur, beste behin, hipoteketa ez ordaintzearen herritar bateri etxea itxiarazotea deusielara entzun dogu. Behin eta barrero ikusi eta entzuten doguz holangoak: han eta hemen, batari eta besteari etxea itxiarazote deusielara hipotekaren kuota sagraduak zintzo ez pagetearren. Eta, zoritxarrez, langabezia-prestazinoak agortu ahala eta familien babes galdu ahala, holango kasuak gero eta sarriago ikusten doguzanez, go-goeta batzuk egin gura doguz.

Lehenengo eta behin, hipotekak ejekuteaz eta horren ondorioez, hau da, jentea etxetik botateaz, berba egin geinke. Behin, etxe hori erosteko gomendioa egin euskuen, kreditua merke egoalako eta inbersino segurua zalako. Baina inork ez eutsan erreparetan etxe-erakuntzearen "mirari" horren atzean promotore eta bankariak egiten ebilen negozio itzelari.

Lapurreta horren aurrean, erakunde sozialak ekintza bi planteetan dabez: batetik, etxetik botaten ez ixtea, eta, bestetik, etxea ordainean emotea, etxeagaz zorra garbitzeko eta ez daien zor osogari bat eskatzen segidu.

Gure eretxian, ekintza bi horreek partxe huts batzuk dira, eta, ganera, holan, bankuak beti urteteten dabe irabazten. Azaldu daigun zergaitik.

Etxetik botaten ez ixtea: ekintza hori eraginkorra izan daiten, bat-batekoa eta ezustekoa izan behar da, bota behar zaituenak momentuko arazorik gura ez dauanean balio dau. Baina eurak



NEKANE JURADO ETA KARLOS MARTINEZ DE MORENTIN

Elkartzeneko kideak

rako dau, merkeago (balioaren % 70ean salduko dau, eta kontuan izan % 20an erosi ebala), eta, ganera, beste mailegu bat eukiko dau eginda.

Argi dago etxea ordainean emotea hobea dana etxea kendu eta, horrezaz gainera, bankuagaz zorra eukiten segidutea baino, baina, etxetik botaten ez ixtea eta etxea ordainean emotea bat-bateko neurriak dira. Neurri horreek osotu egin behar dira, proposamen orokor bat egin behar da, kaltetuen arazoiari behin betiko konponbidea emoteko.

Gure eretxian, arazo honeri urtebidea emoteko modu bakarra erakunde publikoak inpliketea da. Ez daigun ahaztu erakundeak barra-barra emon deutseela dirua kreditu-erakundeai, ordainean ezer hartu barik. Hauxe eskatu behar dogu: bankuak balioaren % 20aren truke gelditu beharrean etxeakaz, erakundeak gelditu daitezala etxe horreekaz. Hau da: Euskal Herriko Etxebizitza Erakunde Publikoa (IPVEH) eratzea. Holan, IPVEHek ordaintzeko gelditzen dan hipotekaren balioa bere kontura hartuko leuke, eta ordaindu dan guztiaren (hasieran ordaindutako kapitala gehi ordaindu diran maileguaren kuota, kapitala eta interesak) besteko kreditu bat onartuko leuke familiaren alde; eta kopuru horri etxebizitza dala-eta egin diran deduzzio fiskal guztiak kenduko jakoz. Lagapen horrek eskubidea be emongo leuke errenta sozialeko erregimenean gelditzeko etxean, ezartzen diran parametroen arabera. Azkenik, finantza-kalkulu bat egingo litzateke, familiaren aldeko kreditu horregaz hileko zenbat kuota bardintzen diran kalkuletako. Hile horreetan familiak ez leuke ezer ordainduko eta epe hori amaitzen danean, familiak momentu horretan daukan egoera sozioekonomikoagaz bat datorren errentea pagauko leuke, ezarrita dagozan parametro orokorren arabera.

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tornea auzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrean beharrez,
euskeraz eginez

Enbata
Batzen gaitu

MONDRAGON
INDUSTRIAL CORPORATION

LUMATUTEN



IDOIA LEGARRETA

Bertigoa

Etorten sumatzen neban. Kaletik paseoa ninoiala, nire ondotik pasau zan neskearen telefonoa barriketan entzun neban lehenengoz. Baina urrin sentiduten neban. Azken aldian baina, gero eta hurrago sentidu izan dot: lagunak daukadan berbaldietan instalau da; hutsik dagoan tabernan, kafea hartzean nagoala be sentidu dot; erosketak page-tako ilaran gengozenen begiak be lausotu ditu... Nire inguruan dago, nire barruan dago, instalau egin da. Bildurra da, ezaguna ez jakun danari deusagun bertigoa.

Etorkizuna inoz baino inosegu-ruagoa bilakatu da. Ikasi, lana, autoa, kreditua, pisua eta familia ekuazinoa, jada, ez da bi gehi bi. Eta horrek bildurra emoten deusku, eta asko. Orain arte, aitaturako eredu horreru uko

egitea, amets egiteko modu bat izan da eta. Eta hori, eroso da oso, bankuko kontu korrontea numero gorrietan gelditzen ez dan bitartean. Baina lana inoz baino ezegonkorragoa dan sasoi honeetan, gure bizitza proiektu propioak eraikiteko aukerak gero eta mugatuago daukaguzan testuinguru honetan, gazteon ezinegona nabarmena da. Eta ohiko galderak. Eta orain, zer? Nora goaz? Zilbor-heste inguruan zirrara etenbako hau...

Baina, antza danez, bertigoa ez da amildegira salto egiteari deusagun bildurra, baizik eta, gure barru-barruan salto egiteko sentiduten dogun nahia. Eta akaso bada momentua erositasuneru eta inobilismora aingurutzen gaituan urrezko harrietatik askatu eta hegaz egiten hasteko. Hainbeste kritikau izan dogun gizarte eredu, konsumismoan eta materialismoan oinarritzen dan gizarte sistema gainditzeko. Kriariaren mamuak ez gagizala paralizau eta egin daigun salto, eredu honetatik kanpo mantenidu izan diran irla flotanteak batu eta kontinente tangiblean gorpuzteko, non, ongizatea, personen arteko desbardintasun eza zein aniztasuna, kreatibidatea edota hartu-emonak gure bizitzetako zentroak bilakatzen diran.

ZERTZEAN



SAIOA LARREA



BEGI TXINDORRA

Txarri-hiltea egiten da oraindino Arratian. Aurten ez da negu oso aproposa izan txarria hilteko, hotz egitea ezinbestekoa da eta zezeila arte ez dau hotzik egin. Ha ta guzti be, gero eta leku gitxiagotan izan arren, leku batzuetan hil dabe txarria aurten be. Horren lekuko Iratxe Etxebarriak bialdutako Ipiñaburun ateratako argazkiak.

Argazkiotan -tarte honetan bakarra erakutsi geinke- txarri-hiltearen prozesu osoa erakusten da. "Lehenengotik barauskarria egiten da: anisa eta pastak jaten dira. Gero txarri-hiltzaileak ekiten deutso beharri, besteak lagunduta. Auzolanaren erakusle. Gero, beharrak amaituta, gibela jaten da" azaldu deutso BEGURI Iratxe Etxebarriak.




 Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
 Ureztaketa instalazioa
 Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
 Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
 Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
 gorosti@gorostiscl.com


agoa Ortodontzia
 Inplanteak
 Estetika
 Marina Urigoitia Aiderko
 Odontologoa
 Bidebarri 1, behea
 48140 Igome-Bizkaia
 T. 94 631 50 39
 Nafarroa Zerbaita 110
 R.P.S. 25/06


JANDONIZ
 nagusientzako etxea
 residencia para mayores
 Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

ARRATIA

Mozorro jaiak nagusi aratusteetan

Eskola umeak eta gazteak mozorro lehiaketak eta desfileak egingo ditue barikuan, hilak 17, eta holan hasiko dira Aratusteak gurean.

Erredakzioa

Gero, herri bakoitzean, egitarau desbardina egongo da, baina gehienetan mozorro lehiaketak, desfileak eta jaiak dira protagonista.

Adin guztietakoak Igorren

Gaur egun, eskoletako guraso alkarteak antolatutako umeentzako mozorro jaiak dira Aratusteak ospatuteko modurik zabalduena gurean. Baina Igorren herri osoan egongo da jai giroa eta edade guztietako jentek hartuko dau parte neguko jai honeetan. Jaia Arratiko Zekorrek RTK, AMEK, Guraso Elkartek, Igorreko Udalak eta Ekintza taldeak antolatu dabe eta tabernak be hartuko dabe parte bertan.

Izan be, Igorren, mozorro lehiaketea egun osokoa izango da eta tabernariak ebatziko dabe zein dan irabazlea. Gainera, umeentzako jolasak, kalejire, herri bazkaria, Jokaldi taldeagaz jantzaldia eta triki-poteoa bertsolariakaz egongo dira aratuste-zapatuan.

Mozorro jai batzuk gai bat hartuko dabe ardatz. Holan, Lemoako kiroldegiko inauteri festan, mitologia izango da gaia eta Zeanurikoan, barriz, komikia.

Egitarauak:

AREATZA

Zezeilak 17, barikua

Herri eskolak, guraso alkarteak eta Udalak antolatuta, arrastian eskola umeen desfilea. Gero, txokolate jana.

ARTEA

Zezeilak 17, barikua

Arrastian eskola umeen mozorro desfilea. Gaia: zibilizazioak.

BEDIA

Zezeilak 20, astelehena

17:00etan, Mozorro tailerra liburutegian.

Zezeilak 21, martitzena

Inauteriak frontoian.

10:30etik 14:30ak arte puzgariak.

17:00etan, musika taldea, mozorro desfilea eta musika taldea barriro.

19:30ean, txokolatea.

DIMA

Zezeilak 18, zapatua

17:30ean, guraso alkarteak antolatuta, jaialdia eskolan.

IGORRE

Zezeilak 18, zapatua

Arratiko Zekorrek RTK, AMEK, Guraso Elkartek, Igorreko Udalak eta Ekintza taldeak antolatuta Aratuste jai eskoletako aterpean.

11:00etan, umeentzako jolasak Zaztaparrak-en eskutik.

12:00etan, guraso alkarteak antolatuta kalejire eta euskal jantzak.

14:30ean, herri bazkaria, Arratiko Zekorrek taldeak antolatuta. (Tiket Gau Loran eta Rugby tabernan erosi daitezke).

ARRATIA

Arratiako ikastetxeak Bilbon manifestau ziran murrizketen kontra

Erredakzioa

Zezeilaren 9an, ELAK, LABek eta EILASEk sektore publikoan deitutako greba eta mobilizazioak hezkuntzan izan eben erantzunik zabalena gurean. Udaletxe eta udal instalazioetan, jarraipena nahiko zabala izan bazan be, ez

zan erabatekoa izan. Garraio publikoari jagokoenean, barriz, Eusko Trenek gitxiengo zerbitzuak bete ebazan, baina autobusak ez eben lanuzterik egin. Osakidetzan, "gitxi gorabehera %10ek" egin eben lanuztea Julen Liendo Igorreko anbulategiko arduradunaren arabera.

Arratiako ikastetxe guztietan

irakasleak greba egin eta pankarta bat ipini eben Lemoako eskolan, murrizketen kontra. Eguerdian, Bilbon egon zan manifestazinora eroan eben Arratiako eskolak sinatuten eben pankartea. "Zerbitzua publikoak arriskuan. Murrizketarik ez" ipinten eban bertan.

Udaletxeetan jarraipena desbardina izan zan. Holan, Igorren, Lemoan eta Zeanurin funtzionario guztiak egin ebela lanuztea jakinarazo dabe udal iturriak eta Areatan, Diman eta Zeberion, barriz, deialdiak ez ebela jarraipenik izan dinoo. Igorre eta Zeanuriko Kultur Etxeetan, funtzionarioak lanuztea egin eben.

IGORREKO 2012 INAUTERIAK

OTSAILAK 18 ZAPATUA

11:00-12:00 Umeen jokoak (ZAZTAPARRAK)
12:00-14:00 Inauteriak kalejira (GURASO ELKARTEA)
14:30 Herri bazkaria (ARRATIako ZEKORRAK)
(Tikeak Gau lora eta AZ rugby taberna)
- Nagusiak 12 €
- Umeak 8 €
17:00-19:00 Jokaldi (AME)
18:00-18:30 Umeen mozorro leihaketa
19:00 Bertso triki poteoa (EKINTZA TALDEA)
21:00 Merienda-afaria (EKINTZA TALDEA)
(Tikeak Gau lora eta AZ rugby taberna - 5 €)

EGUN OSOAN TABERNETATIK ZEHAR NAGUSIEN MOZORRO LEIHAKETA

Tabernak: Sergio, Ikusgarri, Gau lora, AZ rugby taberna, Zekutze, Txaparro, Txikas, Donibane, Ezkiña, Itargi, Errekagane, Axular herriko taberna, Kukuma, Troka, Lakro

A.M.E.
IGORREKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE IGORRE

Igorreko aratusteetako kartela.

17:00etan, AMEK antolatuta Jokaldi taldeagaz jantzaldia.

18:00etan, umeen mozorro lehiaketea.

19:00etan, Ekintza taldeak antolatuta triki-poteoa bertsolariakaz. Aterpean hasi eta Guzuz Aretx txokoan amaitu. Bertsolariak: Onintza Enbeita, Eñaut Intxaurraga eta Irati Benaola. Trikitilariak Loiola eta Arana. Gero, afari-merindea.

Egun osoan zehar nagusien mozorro lehiaketea tabernetan.

LEMOA

Zezeilak 16, eguena

10:15ean hasita, JB Eguskiza Meabe ikastetxeak antolatuta, txitiburduntzia eskolan guraso eta ikasleentzat.

Zezeilak 17, barikua

11:30etik aurrera, JB Eguskiza Meabe ikastetxeak antolatuta, mozorro festa kiroldegian.

Zezeilak 18, zapatua

Umeentzako inauteri festa kiroldegian.

17:00etan, merienda.

17:30ean, diskofesta mitologikoa.

19:00etan, mozorro desfilea.

19:30ean, jaialdiaren amaiera.

Zezeilak 20, astelehena

10:00etatik 14:00etara ludotekea zabalik.

Zezeilak 21, martitzena

10:00etatik 14:00etara ludotekea zabalik.

ZEANURI

Zezeilak 21, martitzena

Aratuste jai Kultur Etxean. Gaia: komikia.

17:00etan, kalejire eta ostan jolasak Kultur Etxean.

18:00etan, txokolatea.

ZEBERIO

Zezeilak 17, barikua

15:00etan, eskolako umeak Pastoral antzetzuko dabe herriko plazan.

17:30ean, Guraso Elkartek antolatuta txokolate jana herriko plazan.

19:30ean, Austarri Kultur Taldeak antolatuta Xaibor DJa herriko plazan.

Zezeilak 18, zapatua

21:30ean, Ermitabarriko Taberna Zaharrean mozorro lehiaketea.



Arratiako ikastetxeetakoak Bilboko manifestazinoan.

AREATZA

Etxeetan energia gastua murrizteko kanpaina abiatu dau Udalak

Erredakzioa

Kanpaina Kyoto Etxeak edo Etxe Berdeak izenagaz ezagutzen da. Aparailuetan momentu bakotxean zenbat gastetan dan agertzen da eta boluntarioen etxeetan ipiniko ditue. "Honen helburua sensibilizazioa da, jenteak kontsumoa murriztu daian" dino Josu Basozabal Areatzako alkateak. Erabiltzaileak dakienean zelan murriztu euren kontsumoa, beste boluntario baten etxean ipiniko da neurgailua. Izan be, energia gastua murrizteko, eraikin publiko eta udal instalazioetan murriztu ondoren, etxe pribaduetan be egin behar dala dino alkateak.

Areatza, beste 1.500 bat herriaz batera, Alkateen Ituna

izeneko europar ekimenaren barruan dago. Hau konpromiso multzo bat da, Europar Batasunaren energia-politikearen helburuetatik urrinago joateko asmoz, CO₂ emisinoak gitxitzeari begira. Horretarako, energia-eraginkortasuna hobetzeko neurriak hartzeaz batera, energia ekoizpen eta erabilera garbiagoa sustatzeko konpromisoa hartu dabe. 2020rako kontsumoa % 20 gitxitu eta erabilten dan energiaren % 20 energia barriztagarria izatea dira Europar Batasunaren konpromisoak eta honeek gainditzen saiatzen dira Areatzan.

Energia barriztagarriak

Kontsumoa gitxitzeko, "kontsumo publikoa gitxitu behar da, garraio

pribadua gitxiago erabili eta etxe pribaduetan be kontsumoa gitxitu. Asko aurreztu ahal dogu, behar doguna baino gehiago gastetan dogu eta" dino alkateak. Holan Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) finantzautako energia barriztagarrien plana dabiz egiten eta eguzkia, haizea, ura eta biomasa erabilteko proiektuak dagoz. Eguzki instalazioak badagoz daborduko udaletxean, ugerlekuetako eraikinean eta frontoian. "Antxinako minizentral hidroelektriko bat berreskuratzeko asmoa daukagu eta minieolikoan zerbaist egiteko aukerea be badago. EEERI eskoletan biomasa erabilteko bidegarritasun ikerketa bat egiteko eskatu deutsagu".

ZEANURI

Zulaibarreko espaloia eta saneamentu lanak 2012ko aurrekontuetan

Erredakzioa

Zezeilaren 14an onartu ziran Zeanuriri 2012rako aurrekontuak, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta Bilduren kontrakoakaz. Aurrekontu honeen arabera, Udalak 2.207.123 euro eukiko dauz bere jardunerako. Zerbitzuak mantendutea, zorraren amortizazioa eta hasita dagozan obra biri ekitea -Zulaibarren espaloia eta saneamentuko lanak jarraitutea, hain zuzen be dira aurrekontuon ildo nagusiak.

Partida barri batzuk be sortu dira: Bardintasun Planerako ekintzak egiteko diru partida bat eta ume eta gazteai zuzendutako beste bat, barbarako.

Zuzenketa partzialak onartu ziran

Bilduk osoko zuzenketea aurkeztu eban aurrekontuak ez dirala parte-hartzaileak, adostu bakoak dirala eta epez kanpo aurkeztu dirala argudiatuz. EAJ-PNV ez goan ados. "Herriko jentegaz

kontaktuan gagoz etenbarik eta honeen eretxiak kontuan izaten doguz aurrekontuak egiterakoan. Uste dogu aurrekontu honeek herriko jenteak gura dauanari erantzuten deusiela" esan eban Izaskun Sagarna alkateak. Osoko zuzenketa hau ez zan onartu. Aldeko botoak (Bildu) lau izan

ziran eta kontrakoak lau (EAJ-PNV) eta alkatearen botoak (EAJ-PNV) ebatzi eban.

Bilduk aurkeztutako zuzenketa partzial gehienak onartu ziran, baina. Tartean, interesetan ordaindu beharreko 4.000 euro agertzea, diru hau ez zan egon jasota eta.



Aurrekontuak onartu ziraneko plenoaren irudia.

IGORRE

Igorreko parrokiatik emongo dau mezea ETBk garizuman

Erredakzioa

Eleizako iturrien arabera, Euskal Telebistak Igorreko Andra Mari parrokia aukeratu dau garizumako asteetan mezea grabatu eta emoteko.

Bestalde, Garizumaren inguruko berbaldi ziklo bat be antolatu dau Arratiako Eleizak, martirako. Arantxa Jaka moja agustindarra eta Juan Mari Uriarte, Donostiako gozai eta Bizkaiko gozai laguntzailea izandakoa, izango dira hizlariak.

AREATZA

Aurrekontuak "igazko bidetik"

Erredakzioa

Aurrekontuak Ogasun Batzordetik pasa eta hilean onartutea espero dau Josu Basozabal Areatzako alkateak. Guztira miloe eta erdi euroren bueltan egongo dirala dino alkateak. Helburua, daukiezan zerbitzuak eta prestazioak mantendutea da eta inbersinoak egiteko diru laguntzak behar izango ditue.

Udalkutxak diru gitxiago bananduko dau aruten eta aurreko urteetan lar kobrutakoa itzuli egin behar dau Areatzako Udalak. Gainera, "igaz basoen etekinak kobrete toketan zan eta hori, aruten eukiko ez doguzan ehun mila eurotik gora izan zan. Dana dala, igazko bide beretik doaz

aurrekontuak: miloe eta erdi, miloe seirehun euroren bueltan" dino alkateak.

Kaltzadea konponduteko lanak

Basozabalen arabera, Askatasun kalea konpondutea, hau da, hariak aldatutea, eta trafikoa lasaitzeko neurriak hartzea lehentasuna daukie. Konponketa horretarako diru laguntzea eskatu deusie Foru Aldundiari. Eusko Jaurjaritzari, barriz, Etxe Mudejarra konponduteko proiektua egiteko beste diru laguntza bat eskatu deusie.

Horrezaz aparte, "kontsumo gitxi babil batzuk ipiniko doguz, eraginkortasun energetikoa osotuteko eta ludotekea zabalduko da, esleipen fasean dago eta" dino Basozabalek.

UBIDE

Tapoiak batzeako edukiontzia

Erredakzioa

Ubiden, plastikozko tapoiak biltzeako 1.000 litroko edukiontzia bat ipini dabe. Tapoi honek birzikla eta, holan jasoten dan dirua gaixotasun arraro bat ikertzeko erabiliko dabe Garmitxa alkarteak. "Ekimena, telebistan alkarizketa bat ikusita sortu zan. Garmitxa alkarteagaz kontaktuan jarri ginan" azaldu deutso BEGURI Agurtzane Bengoak Udaletik. Umeak eta gurasoak margotu eben edukiontzia hau.

Garmitxa irabazi-asmorik bako alkarte da eta ez elikagairik

jan ezin daben ume biren familiak sortu dabe. Plastikozko tapoiak BilboPlastik enpresara eroaten dabez birzikletako, eta enpresa honek tona bakotzeko 300 euro pagetan deutsez Garmitxaren webgunean agertzen dan informazioaren arabera. "Lan asko da diru apur bat biltzeako, baina desesperazioak bultzatuta ekin geuntsan honeri" azaldu deutso BEGURI Garmitxa alkarteak kide batek.

Dirua gaixotasuna ikertzeko erabili gura dabe, baina oraindino laborategirik ez dabe lortu "ez da erraza" dino Garmitxakoak.



ZEANURI

Piedadeko artearen inguruan ospatuko dabez San Balendinak Eleizondon

Igaztik artea zenbat hazi dan neurtuko dabe.

Jon Urutxurtu

Aurten zezeilaren 19an ospatuko dabez San Balendin jaiak Zeanuriko Eleizondo auzoan, Piedadea izenez ezagutzen dan ermitearen iguruan. San Balendin eguna zezeilaren 14an, martitzenean egokitu da aurten, eta horregaitik hurrengo domekara atzeratuz ospatzen dabe jaiak eleizondotarrak.

Horretarako egitarau bitxia antolatu dabe: 11:30ean mezea Andra Mari parrokian; meza ostean, San Balendinen irudia parrokiatik 50 bat metrora dagoan ermitara eroango dabe, datorren urtera arte bertan ixteko, eta jarraian ermitearen aurreko artearen neurketari ekingo deusie. Neurketaren akta sinatu eta gero, aurtengo maiordomoak, Benito Manterolak, datorren urtekoari, Sebastian Gortazarrerri, agiri-liburua eta ermitearen giltzea pasauko deusaz. Ostean, barauskarria —urdaia, pamitxea eta ardaoa— bananduko da ber-

tara hurreratzen diranen artean. Ekintza horreek herriko txistularien doinuen eta Eñaut Intxaurrea eta Jabi Olibares bertsolarien kantuen artean burutuko dira.

Eleizondotarrak orain dala 53 urte hasi eben eta orain dala bost urte, aldi baten bertan behera itxita egon ondoren, berreskuratu eta

ofizialtasuna emon gura izan eutsien ekintzeari: Piedadeko artearen neurketari. "Aldi baten ohitura hau galdu egin genduan, baina 2007an neurtzen hasi ginan barriro, eta 2008an neurtzeaz ganera, agiri-liburua zabaldu genduan, bertan neurtzaileak, maiordomoak eta idazkariak sinatuz" dino Benito Manterola maiordomoak.

Igaz 178,50 cm-ko perimetrea hartu eutsien arteari 150 cm-ko altueran.



Eleizondoko jaiak.

Argazkia: Jon Urutxurtu.

BERBALAGUN

ZER DA? **NON?**
Zelan?

ONDO PASAUKO DOT?
NORENTZAT DA? **ZELAN?**
ZELAN IZANGO DA?
ZENBATERO?
NOR JOANGO DA?

ASTEAN ORDUBETEZ TALDE TXIKIETAN EUSKERAZ BERBA EGINGO DOZU
PRATICARÁS Y HABLARÁS UNA HORA A LA SEMANA EN EUSKERA

EUSKERAZ BERBA EGITEKO ERREZTASUNA LORTUJKO DOZU
CONSEGUIRÁS FACILIDAD PARA COMUNICARTE EN EUSKERA

ARRATIEREA PRAKTIKAUKO DOZU
PRATICARÁS EL ARRATIANO

JENTEA EZAGUTUKO DOZU
CONOCERÁS GENTE

94 631 53 84



eta
EUSKERAZ BIZIKO ZARA
VIVIRÁS EN EUSKERA

Instalazio industrialak · Mantenimendu industrialak · Tresneria eta kontrola · Merkataritza
estlabezimenduen instalazioak · Etxebizitzaren erreformak edo berrikuntzak · Antena instalazioak
Mantenimendua · TDT · Telekomunikazioak · Herriko argiak · Potentziadun koadroak



Arratian kultura bultzatzen

indar

instalazio elektrikoak

Bildosola industria gunea, pab. E-3/4 · 48.142 Artea (Bizkaia)
Tel.: 94 655 47 19 · Fax-a: 94 404 06 70 · E-posta: indarsl@indarsl.es

BASOA

Pinua gaixorik

Balio handia dauka basoak gurean: biologikoa, ekonomikoa, sinbolikoa... Eta maila guzti horreetan basoagazko gure erlazioetako modua aldatuz doa. Aisialdiari jagokonean, mendi taldeen *boom*-a daukagu edo Gorbeialde Central Parkek antolatuten dituan jarduerak, mendiaz gozatzeko beste modu batzuk suposatzen dabenak.



Lekandakoa hatxak zurituta.

Erredakzioa

Arlo ekonomikoan be, jarduera honeek, turismoa erakartea daukie helburu eta beraz, basoari etekina aterateko modua be badira. Turismoa erakarteko, baina, biodibersidadea eta baso autoktonoak behar dira eta horrek talka egiten dau orain arte izan dogun basoaren ustiapen ekonomikoagaz: pinuagaz, hain zuzen be.

Baina pinua gaixorik dago. Egunotako edur honeek izan arte, ez dogu negurik izan eta koko eta mamarro ugari egozan pinudietan. Izan be, pinu-beldarra edo prozesionaria (*Thaumetopoea pityocampa*) hainbeste ikusita izurritea iruditu jaku eta basoen, baina batez be pinudien egoerearen barri jakin

gura izan dogu. Edurrak pinuari onurarik egingo eutsan ez daki, baina kokoak ez ugaritzeko ontzat eukan gure aitik edurra. Eta egunotan bota dau.

Pinua nagusi

2005ean egindako Baso Inbentarioaren arabera, pinudiak (8.740 ha) basoen (14.626 ha) % 60 osotuten dabe; hau da, Arratiako lurraldearen (20.000 ha) % 44. "Koniferoak, danak batera (11.603 ha), basoen % 80 eta lurraldearen % 56 dira. Aitatutako basoak monokultiboak diranez, biodibersidadean daukien eragina argi dago. Ekonomiaren aldetik, beste horrenbeste: monokultiboak arazorik badauka, ekonomiak be arazo bera dauka" azaldu deutso BEGITURI Jose Luis Atutxa *Arratiako*

Basogintza. Zenbait espezieren azterketa tekniko liburuaren egileetako batek.

"Bereiztu beharko da baso produktiboak diran eta ez diranen artean. Argi dago gure eskualdeko beheko lurretan pinua nagusi dala eta arbola honen errentagarritasuna momentu honetan dudan dagoala, zeren eta merkaduan dagozan prezioak ez dabe animetan baso jabeak daukien zereginai, ez bakarrik landatutea, basoa aurrerantzean jagoitea be bai" dino Peli Manterola Gorbeialde Landa Garapenerako Alkarteko zuzendariak.

Pinuen prezioaren jaitsiereak eragin zuzena euki dau pinudi asko dagozan lekuetan eta Arratia holango eremua da. Gainera, pinudien kudeaketea egokia ez dala dino Atutxak "landaketa

asko eremu ez egokietan dagoz, eta basogintza desegokia gero eta gehiago da (mehazketak, inausketak, pinudi zaharrak) batez be pinudiaren errentagarritasuna jaitsi dalako edota egungo prezioakaz errentagarria ez dalako".

Egurak prezio bazuak

Basogintzea epe ertain edo luzeko inbersinoa da eta prezioak, izurriteak eta gaitzak eragina daukie honen errentagarritasunean. Pinuaren egurrak prezio bazuau dauka merkaduan momentu honetan.

"Pinu egurraren balioa handiagoa izango zan etxebizitza, estruktura eta beste balio handiagoa daukien erabilera batzuetan erabiliko balitz eta ez bakarrik balio gitxi daukien erabileretan. Momentu honetan beste indus-

"Prozesionaria betirako izango dogu gure artean, endemismo bat da"





Argazkia: Edurne Landajo.

tria mota bat be agertu da eta biomasa erabilten dauan industria energetikoa da, behar bada industria hau ez da izango gure basoen urtenbidea baina balio gitxiko egurra erabiliko dauanez papergintzearen konpetentzia bihurtu ahal da eta hori sektorearentzat ona da" dino Manterolak.

Pinu egurra merke saltzean da eta gainera, gaixorik dago pinua. "Gure basoak momentu honetan daukien gaixotasun larriena prozesionaria da. Ondo ezagutzen dan gaixotasun bat da eta bere kontra zelan behar egin protokolotuta dago. Honetaz aparte, pinudiak

sa zuriska batzuetan. Urte batzuetan gehiago eta beste urte batzuetan gitxiago. Aurtengo neguko lehenengo partea epe-la izan da eta Mediterraneoko klimako mamarroa danez, bitxo honeri gauzak ondo joan jakoz eta ugaritu egin da. Plaga hau betirako izango dogu gure artean, gugaz bizi da eta hemendik ez da joango (endemismo bat da). Gure zeregina, batez be administrazioarena, mamarro hau kontrolauta eukitea da, eta horretarako teknika desbardinak erabilten dira, ezagunena helikoptero edo abionetatik udan

pagadi eta beste arbola autoktoen egoerea osasun arloan ona dala uste dau Gorbeialdekoak. Azalera txikia izan arren orokorrean, azkenengo urteetan baso publikoetan hektarea asko landatu dira holango landarekaz, batez be Gorbeia eta Urkiolako Parke Naturaletako basoetan. Arbola autoktonoa daukien baso honeen helburua ingurumenaren babesa da.

Biodibersidadea eta errentagarritasuna

Basoari errentagarritasuna pinuaren bidez ez (edo ez bakarrik)



Pinua gaixorik dago.

Argazkia: Edurne Landajo.

beste arrisku bat dauka, eta "fusarium" onddoa da, Durangaldean eta Busturialdean batez be izan dau eragina onddo honek baina Arratian momentuz ez da agertu" dino Gorbeialdekoak.

Aurten prozesionaria ugari dago eta egin dauan negu epe-lak eragina izan dau horretan. Dana dala, azken edurteak ez dabela arazoa konponduko dino Manterolak. "Neguan agertzen dira gure pinudietan prozesionaria deritxan mamarroak bolt-

botaten dan botikea da, leku batzuetan *dimilin* produktua eta beste batzuetan *bacillus turigen-sis*. Baina beste teknika batzuk be erabilten dira: txorientzako kutxa-habiak ipintea, boltsak tiroz apurtzea, feromonen bitartez txilipotoi bihurtzerakoan tranpen bitartez harrapatzea... Egin dauan edurra mamarroen gustukoa ez da, baina prozesionariak badaki hotzaren kontra zelan babestu, lurperatu egingo da eta kito".

Baina dana ez da pinua, eta

beste bide batzuetatik be atera behar jakola pentsetan dabe adituak. Biodibersidadea eta paisajea oinarritzakoak dira, baina ehiza, zizak eta zuraren beste erabilerak be aitatzen ditu Atutxak. "Zuraren merkadua bakarrik begiratu eta bideratu ezker, diru iturria edo errentagarritasun ekonomikoa ez da oso argia, baina basoen kudeaketea eta antolakuntzea erizpide gehiagogaz egiten bada, diru iturriak gehiago dira eta hori beti da ona" dino.



Arratiako lurraldearen %
44 pinudia da

Biodibersidadea eta paisajea oinarritzakoak dira pinua ez beste errentagarritasun bideak bultzatzeko



Pinu egurraren prezioa sano bajua da.

FUTBOLA

Arratiarrak goi goian

Arratiako gizonetzko zein andrazkoak lehenengo postuan jarraitzen dabe, Lemoakoak osterera zuloatik ezin urtenda.

Maialen Egileor

Arratiako gizonetzkoak bardindu egin dabe azken bi jardunaldietan: bana Gazteluzarragaz eta 0-0 Plentziagaz. Halanda be, lehenengo jarraituten dabe oraindino 48 puntugaz. Hori bai, bigarrena,

Lekeitio, hurrago dago orain, bi puntura bakarrik. Arratiako andrazkoak, osterera, garaipena lortu dabe azken partiduetan (2-1 La Mercedegaz eta 0-5 Peña Athletic Sestaotarragaz) eta distantzia mantenduten dabe atzekoak. 47 puntu daukaz Arratiak eta 6 gi-

txiako, 41 bigarrenak, Barakaldok.

Lemoa zuloan

Federazio Kopako bueltako partidua bertan behera gelditu zan eguaztenean Arlonagusia izoztuta egoalako. Domekan, barriz, Eibarren kontra jokatu ahal izan eben eta Lemoa jokalaritza bat gixiagogaz egonda be, bina bardindu eben. Holan, azkenurreko da barriro sailkapenean 14 puntugaz. Puntu bardinak daukaz azkenengoak, Burgosek eta bere kontra jokatuko dau hurrengo jardunaldian. Hain zuzen be, Lemoak denporaldi honetan irabazitako azken partidua Burgosen kontra izan zan Arlonagusian.

PELOTEA

Lemoa, Dima eta Zeanuri Arratia-Nerbioi E txapelketaren finalean

Erredakzioa

Areatzan jokatutako B txapelketaren finalean ezin izan eban txapela lortu Dimako Lur Ziarrusta eta Iker Akesolok osotutako bikoteak. Orozko B taldea nagusitu jakien 18-11. B txapelketan Dimako gaztetxoak izan ziran Arratiako ordezkari bakarrak. Giro ona eta antolakuntza ezin hobea Areatzan.

E txapelketaren finala, barriz, Orozkon jokatuko da hilaren 18an. Partiduak honeek arrastiko

16:30etik aurrera jokatuko dira: Aurreumetxoak: Orozko-Zeanuri. Umetxoak: Orozko-Lemoa. Umeak: Usansolo-Orozko. Gaztetxoak: Dima-Lemoa. Honeek barriz, goizez, 11:30etik aurrera jokatuko dira. Kadeteak: Orozko-Lemoa. Gazteak: Usansolo-Arriorriaga. Pelota eskolen jai hau, 15:30ean hasiko da Arratia-Nerbioiko 13 pelota eskolen kalejireagaz. Eta ostean afaria izango dabe finalera heldu diran pelotari guztiak.

AIZKOREA

Aitzol Atutxa eta Iñaki Azurmendik finalurrekoetarako pasea lortu dabe

Irti Urien

XI. Eusko Label Binakako Aizkora Txapelketeak badaukaz jakiteko falta jakozan aizkolari biren izenak. Aitzol Atutxa eta Iñaki Azurmendik Donato eta Oihan Larretxearen aurkako norgehiagoketa irabazi eben Alegria-Dulantzin, modu horretan finalerdietarako pasea exera ekarriaz.

Dima eta Arriaraneko aizkolariak 19 minutu eta 24 segundotan amaitu eben euren lana. Berako aita semeak, osterera, 20 minututan. Finalerako pasea domekan, hilak 19an jokatuko dabe Galdakaon Atutxa eta Azurmendik.



Aitzol Atutxa.

MENDIA

Hile bat Gasherbrum I-en

Erredakzioa

Alex Txikon eta bere ekipoak bete dabe hile bat Gasherbrum I-en, bide barria zabaltzeko ahaleginean. Lehenengo kanpalekuan (6.400m) dagoz eta hotza ikaragarria da. BEGITUK Txikonegaz egin eban berba facebookaren bitartez zezeilaren 9an eta momentu haren -37° C eukien denda barruan.

Mendiaren ertza sokaz finkatzen egon dira egunotan, bigarren kanpalekua ipini eta tontorerako saioa

egiteko. Eguraldi sano gogorra izan arren, baikor eta animata jarraituten dau mendizale lemoaztarrek.



Alex Txikon.

Umeen moda 0-20 urte

- Babak
- Ray
- Aranda
- Akr
- Guzutxer
- Arandiga
- Grandele
- Leiz
- MaSSana

sein

LEHENEGAKO AGORRE, 27 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE Autoeskola

TEORIA BUKARAZ ZEIN ERDARAZ

Balantzi: A1, A, B7E, B

Lehendakari Agirre 31
Tfnua: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@ovsk.com

AKESOLO, S.A.

GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK

Garbe, 29 Telefon: 94 673 60 14 IGORRE BIZKAI

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA

Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak

Juan de Auriagera 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

BIXER TABERNA

Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

axular

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

indar

instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAI
T. 94 655 47 19
indars@indars.es • www.indars.es

ARKEITEGIA

GAY & LORA

IGORRE

Emilio Galtia banatzaile ofiziala

San Miguel

Ardoak Edariak

94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloa (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LEGI-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DERU KONSTRUKTAN
ONDASUN HIGIEZINEN
ASIGURUTAN

Bilbao Arana, 5 Tfnua: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 64 01 - 48140 IGORRE

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3, 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

ekin s.a.

INDUSTRIALDEAK
GARRAIOAK
LUR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturizte barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

Pinturas Arratia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

TXIRRINDULARITZEA

Zaletuak txirrindulari alkarteak sortu dabe Lemoan

Erredakzioa

Zornotzako ziklista taldean egoazan lemoaztar batzuen ekimenez eta Udalak lagunduta sortu da LTE Lemoa Txirrindulari Elkartea izeneko alkarteak. LTEk urteera bat antolatu dau domekarako, hilak 19. Momentuz 60 bat zaletuk osotuten dabe Lemoako Txirrindulari Elkartea, baina "hilaren 20ko batzarrean kopuruak gora egitea espero dogu" azaldu deustso BEGITURI Kepa Larrea LTEko idazkariak.

Maillotaren diseinua

Urteera eta hurrengo eguneko batzarra prestatzeaz gainera, maillotaren diseinua egiten dabiz Lemoako txirrindulariak "ia udan geure mailotagaz urteterik daukagun!" dino Larreak. Horretarako, bazkideak eurak aukeratuko dabe diseinua hurrengo asanbladan. Asanbaldak Lemoako Gaztelekuan egiten dira, egutegian programautako urteeren hurrengo

astelehenean, arrastiko zazpiretan.

Maillota euki arren, ez dabela ez ekiporik ez ziklismo eskolarik sortzeako asmorik dino Larreak. "Zaletu talde bat gara, urteerak egingo doguz. Gure asmoa da hilean bat egitea, udara hurreratu ahala kilometroak gehituz".

Zailtasun ertaineko urteera

Hilaren 19an domekea egingo daben urteera 73 km. ingurukoa da eta zailtasun ertainekoa. Ibilbidea honako hau izango da: Lemoa-Zornotza-Durango-Sabeco-Abadiño-Mendiola-Abadiño-Atxondo-Arazola-Atxondo-Elorrio-sahiesbidea-Elorrio-Miota-Berriz-Durango-Zornotza-Lemoa.

Mendiko bizikleteagaz be egiten dabiz urteerak. Hurrengo hilaren 26an izango da eta 25 km. inguru izango ditu. Ibilbidea, Lemoa-Usansolo-Lekubaso-Mandoia-Apario-Salderri-Lemoa izango da.

ZIKLO-KROSA

Igorreko ziklo-krosa Munduko Kopatik kanpo geratu da

Erredakzioa

UCIk, Munduko Kopako antolatzailak, Arratia Ziklista Elkarteari mezu bat bialdu eutsan zezeilaren 6an Munduko Kopako lasterketa-

rik ez dala Igorren egingo jakinarazoten. Lasterketa hori Erroman egingo da hemendik aurrera.

UCIk emondako arrazoiak, Juan Mari Zurinaga AZEko presidentek BEGITURI azaldu deustanaren

arabera, honeexek dira: Igorren gizonezko elite maila bakarrik egiten dala eta ez andra, senior eta beste kategoriako Munduko Kopako lasterketarik; eta ETBk egiten dauan emonkizuna ez dala nahikoa edo egokia. Gainera, beste uri batzuk be eskatzen dabiz urteetan lasterketa hau antolatutea.

Honen aurrean zer egin azterzen dabiz AZEkoak, baina Igorren daukiezan diru baliabideak ezinezkoa jotzen dabe kategoria guztietako lasterketak antolatutea.



Igazko lasterketako irudi bat.

ERRUGBIA

Zekorrak bigarren postuan

Ainhoa Duñabeitia

Astegoien ederra zekorrena, kadeteak latzago ibili ziran. Talde biak partidua jokatu eben Errioxan zezeilaren 11n. Eguerdiko 14:30ean jokatu eben kadeteak, partidu txarra, 90-0 galdu eben eta. Zekortuak azkeneko postuan jarraitzen dabe.

Seniorrak, ostera, ederto. Bolada txarra atzean itxi dabe eta gogotsu dabiz aurrera begira. Galtzean hasi eben partidua baina arin erreperau eta partidua eurenganatu

eben zekorrak. Rioja Sport Tavern 19-Arratiko Zekorrak 27 izan zan

azken emoitzea. Sailkapenean bigarren dagoz Zekorrak. Holan jarraitu ezkerro, mailaz igoteko aukerak daukiez. Hurrengo partidua San Txismen izango da, domekan, hilak 19, goizeko 11:30ean Irun RT taldearen kontra.



Arratiko Zekorrak partidu baten.



Mendiko bizikletakaz be egingo dabiz urteerak.

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburetan pintxo bereziak

ARRATIKO ZEKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Airekondutza sistemak - Aire zurgintza zentralizatua
Tubak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorriko Industriak, Pab. 37
Tel. Fax 94 673 62 76
619 736 616
48143 Igore Bakaia

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoia

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igore

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Btxilergoak, Hezkuntza zikloak

IRAKURLE KLUBA

Umeen Irakurle Kluba sortu da Bedian

Orain dala urte bi martxan hasitako Bediako Irakurle Klubak euki dauan arrakastea ikusita, umeentzako irakurle-talde bat antolatutea ebatzi dabe antolatzaileak.

Erredakzioa

Egitasmoaren lehen saioa zezeilaren 29an izango da, Xabier Mendiguren idazleagaz.

Gauza bi lortu gura dira umeentzako saio honeekaz; batetik, euren irakurzaletasuna bultzatzea, eta, bestetik, umeen klubetik helduenera bitarteko zubi lana egitea, gaztaroan helduen taldera pasatu daitezcan irakurleok.

Hasieraren baten, 8-12 urte bitartekoentzat pentsautu badago be, adin horretatik beherako zein gorako umeentzat dago zabalik. Gainera, umeak bakarrik edo gurasoak lagunduta hurbildu leizez Bediara, alkarregaz disfrutatuko literatura berbaldiokaz.

Irakurle taldearen funtzionamendua helduenarena modukoa izango da. Saioaren eguna baino lehenago, komentauko dan liburuaren barri emongo da; holan, liburua aurretik irakurrita izanda, umeak aukerea eukiko dabe lanaren egileagaz berba egiteko edota irakurtean sortutako dudak itauntzeko. Halanda be, ez da derrigorrezkoa liburua irakurrita eukitea irakurle taldera hurreratzeko.

Julen Gabiria proiektuko arduradunak dinoan lez, asmoa bi hilerik behin egitea da, helduen klubaren moduan. Holan, hila-bete baten umeen kluba egingo litzateke, eta hurrengoan helduena, txandaka.

Egun bat Petre Romanescuren bizitzan

Lehen saioa zezeilaren 29an izango da, Bediako liburutegian, 18:00etan. Xabier Mendiguren idazlea izango da konbidatua *Egun bat Petre Romanescuren bizitzan* (Erein, 2008) liburuan ganean berba egiteko. Beasaine-

ko idazleak haur literaturako Lizardi saria irabazi eban, 2009an, lan honeguz.

Liburuak Peter Romanescu gazte errumaniarren bizitza kontetan dau. Europa ekialdetik etorritako komunitate horren bizimoduaren barri emoten dauan tonu sozialeko ipuina da.

Gabiriak aitutzen dauan lez, sortu barri dan irakurle taldera ekarriko diran lan gehienak umeen inguru hurbilari buruz egingo dabe berba. Izan be, identifikazio hori piztea pausu garrantzitsua da umeen irakurzaletasuna lortuteko.



Xabier Mendiguren.

LITERATUREA

Mikroipuin erotikoen "masterra" Lemoako Karabie gaztetxean

Erredakzioa

Lemoako Harrikerarrak Gazte Asanbladak ipuin labur eta mezu erotikoen idazketea bultzatuteko proiektua ipini dau martxan. Modu ireki eta parte hartzailean sortutako proposamen lez planteatu dabe. Halan, bere lanen barri emon gura dauan edozeinek gaztetxearen blogean sartzea besterik ez dauka

bertan ixteko bere idazlana. Parte hartzea guztiz anonimoa izango da.

Blogean biltzean diran testu labur horreekaz guztiakaz mikro-fanzine bat argitaratuko dabe antolatzaileak. Genero barruko lanak izateaz aparte, laburtasuna izango da balorauko dana; izan be, hamar lerrotik beherako testuak dira aurkeztu beharrekoak.

Testuak idazteko epea zabalik

dago, eta udabari hasierara arte egongo da aukerea baxotxaren sormen lanak idazteko. Gaztetxearen bloga: www.blogak.com/karabie.



Kartela.

ANTZERKIA

Hil arte bizi Igorreko Lasarte Aretoan hilaren 26an

TXALOK aurkezten du

HIL arte BIZI

zuzendaria BEGOÑA BILBAO



Iker Galartza, Sara Cozar eta Joseba Usabiaga.

Erredakzioa

Hilaren 26an, gaueko 20:00etan Txalo produkzioak-en eskutik Iker Galartza, Sara Cozar eta Joseba Usabiagak antzeztuko dabe *Hil arte bizi* antzezlana Igorreko Kultur Etxean.

Antzezlana hau adiskidetasunaren mugen inguruan egiten dan hausnarketea da. Nacho, Angel eta Maria. Gizon bi eta andra bat eta jakina... gitxienez pare bat maitasun istorio. Hiru lagun, betiko lagunak, betirako lagunak... edo ez. Zerbaist gertatuko da. Larria izango da haren arteko adiskidetasuna kolokan ipiniko dau eta. Zer egingo zeunke zure bikotekideak zure lagun onenagaz alde egingo baleu? Bai parkatuko zeunskie? Bietako bateri? Nori? Eta heriotza tartean bada... dana desbardin ikusten da? Edozer parkatu zeinke mai-

tasunagaitik? Eta adiskidetasunagaitik? Min egitea baino egia ezkatutzea hobea da? Zein da zure aukerea? Hil arte bizi.

Hil arte bizi heriotzaz berba egiten dauan komedia eta adiskidetasunaz jardungo dauan tragedia da. Biziteko gogoaz berba egiten dauan tragikomedia.

Martiaren 2an Printzea eta ahatea

Gorakada Teatroaren eskutik umeentzako ikuskizun hau gozatzeko aukerea egongo da martiaren 2an arrastiko 18:00etan. Istorio txikerra da hau. Hain txikerra, ze gaztelu bat, arbola bat eta etxe bat baino ez dituan behar kontatua izateko. Baina istorio honek oso gauza handiez egiten dau berba. Bertan pertsonaje txiker bi ohartuko dira ez dagoala jolasteko nonor eukitea baino gauza dibertigarriagotik.



AISIA

Gazteai zuzendutako proiektua jarri dau martxan Lemoako Udalak

Zastaparrak Asti taldeak herriko hiru gazte gaz alkarlanean, gazteai zuzendutako proiektu bat jarri dau abian.

Erredakzioa

Proiektu honen aurkezpena, jai batez egin zan zezeilaren 11n. Aurkezpenaren ostean pintxo lehiaketeta eta kopautxoak egon ziran.

Proiektu honen arabera, asanbladak egingo dira hilero Gaztelekuan, eta bertan ebatzitako ekintzak antolatuko ditue gazteak Udalaren laguntzeagaz. Gainera, litzartu progamearen bitartez, gaztetxoek ekintza, ikuskizun eta tailer bereziak izango ditue hi-

lean behin eta Gazte Bulegoa be sortuko da. Gazte Bulegoa 16 eta 26 urte bitarteko gazteai zuzendutako informazio gunea izango da eta astean behin egongo da zabalik Elizondoko Kulturgunean.

Haur txokoa zabalik

Gazteak bakarrik ez, umeak be badaukie euren txokotxo Lemoan. Izan be, hiru urte arteko umeentzako eta honeen guraso edota jagoleentzako egokitutako gela bat dago erabilgarri zezeilaren 9tik.



Umeen txokoa.

ZERTU

Zertu Kultur Elkarteak zuzendaritza barria onartu dau



Zerturen Batzar Orokorra.

Erredakzioa

Oihane Barrenetxeak alkartearen presidente izaten jarraituko dau, baina Hektor Rodriguez presidenteordeak karguari itxi deutso eta Aitor Erdozia izango da presidenteorde barria. Zertuko zuzendaritza batzorde barria zezeilaren 10ean, urteko Batzar Orokorrean onartu zan. Diruzaina eta idazkaria ez dira aldatu, Jürgen Lange

eta Urtzi Barrenetxea dira hurrenez hurren. Bokalen artean, Olatz Elejabarrieta, Iñigo Iruarizaga, Aitziber Milikua eta Cristina Ruiz mantendutak dira; aldaketa bakarra, Maitane Diezen orde, Beatriz Azpiri egongo dala.

Batzarrean, 2011ko kudeaketearen eta 2012rako egitasmoen barri be emon eben presidentek, diruzainak eta idazkariak. Igazko urtean aldizkarian izan-

dako aldaketak aitatu ziran. Holan, 2011n BEGITUK 6.400 aleko tiradea izan dau, aurreko urtean baino 100 gehiago; apirlean 80 g.ko papeletik 55ekora pasau zan eta eduki barriak be egon ziran. Begitu-lagunai jagokienean, 396 dira momentu honetan.

webgune barriztua 10. urteurrenean aurkeztuko dabe

Aurten 10 urte beteko dauz BEGITUK. Webgunea barriztuten dabilzela esan eban Urtzi Barrenetxea idazkariak eta urteurrenean, apirilaren 20an, aurkeztutako asmoa dagola adierazo eban. "Papelean agertuten dana pdf.an agertzea ez da gura doguna. Webgune interaktiboa gura dogu, jentek parte hartu daian".

Egitasmoen artean, erredakzio-taldea sortu eta hirugarren lanpostua sortzeako aukerea aztertu eta landu, aldizkariaren banaketea eta presentzia indartu, webgune barria sortu eta kudeatu eta diru laguntzak indartutea dagoz.

Aldizkariaren balantzea eta aurrekontuak be aurkeztu zituen Zertukoak. Igaz ia 124.000 eurokoa izan zan aldizkariaren gastua eta aurtengo aurrekontuak be diru kopuru hori aurreikusten dau.

DUNBA

Meakaur, non ete?

Zeberioko Zubialde Hiko ikasleak

Meakaur oso auzune txikerra da; eleiza handia, aterpea eta bost edo sei baseri baino ez dagoz. Morga herriko auzunea da, Mungia eta Gemika artean. Bertako bizilagunak euskaldunak dira baina gu zertan joan eta ingelesa ikasten!

Zeberioko eskolako ikasleok Meakaurera joan ginan astebe-terako. Autobusez Muxikaraino, bertakoak batu eta aterpera heldu ginan. Han Ataun eta Ormaiztegi eskoletako ikasleak egon ziran gure zain. Euskera mota desbardinak entzuteko aukerea izan genduan; Gernikaldeko bizkaieria eta Goierriko gipuzkera.

Danak, eskola desbardinak nahastuta, alkartu ginan taldeak egiteko. Bost talde egin ebezan, zugatzen izen ingelesak erabilia: *Oak, walnut, beech, pine* eta *lime*.



Meakaur auzunea.

Proiektu txikiak egin genduzan abesti, eskulan eta jolasen bitartez ikasteko, egunean-egunean bat: *Solar system, skeleton, food*

pyramid eta *water cycle*. Egun osoan zehar landutakoak, arrastian, eskolak amaitutakoan, aurkeztu genduan beste taldeen aurrean,

ingelesez jakina! Eta gainera bertako blogean azaltzen genduzan gure ekintzak. Interneten Play&say helbidea bilatu ezkerre to-



pauko dozue.

Jolas batzuk be egin genduzan egunotan. *Treasure hunt* (altxorren bila), *music box* (bonba jolasaren antzekoa, baina itaunak erantzun, antzeztu, abestu edo jantza egiteko txartelak eukazan kutxa pasetakoa), *monitor hunt* (irakasleak ostondtu eta guk topau behar izaten genduzan).

Goizetik altxetan ginan zortzirak inguruan, baina arinagotik itzartuten ginan eta berbaz hasi. Janlekua taldeka prestatu eta garbitu behar izaten genduan, gosarian, bazkarian eta afarian.

Jolasorduetan eleizaren inguruan futbolearen eta harrapaketan emoten genduan denporea, edo beheko solairuko gelan futbolen, ping-pong edo billarrean olgetan. Diskotekea be izan genduan azkenengo gauetan.

AGENDEA

**ZEZEILAK 16
IGORRE**

Biladi Hadi erakusketea hilaren 27ra arte Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan. 20:00etan, zinekluba. Gaia: komikia. *Maria y yo* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:15ean hasita, JB Eguskiza Meabe ikastetxeak antolatuta, txixiburduntzia eskolan guraso eta ikasleentzat.

18:30ean, Lemoako Haur eta Gazteen XI. Ipuin Lehiaketaren sari banaketara. Xalto ta Xalto pailazoak. Ludotekan.

**ZEZEILAK 17
ARRATIA**

Aratusteak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

BEDIA

18:00etan urteerea domekara arte, Baqueira Beretera eskiatzera. Ganguren Mendi Taldeak antolatuta.

**ZEZEILAK 18
AREATZA**

11:00etan, berbaldia "Gure pagoen etorkizuna". Parkekean.

ARRATIA

Aratusteak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**ZEZEILAK 19
IGORRE**

17:00etan, umeentzako zinea *El gato con botas*. 19:30ean, zinea *Nader y Simin: una separacion* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etan, Lemoa Txirrindulari Elkartearen urteerea. Kaminoan 73 km. Gaztekearen ondoko plazatik.

ZEANURI

11:30ean mezea parrokiaren. Meza ostean, San Balendinen irudia parrokiatik Piedadeko ermitara eroango da. 12:30ean Piedadeko

artearen neurketara. 12:45ean, barauskarria: urdaia, ardaia eta pamiatxa. Herriko txistulariak eta Eñaut Intxaurrea eta Jabi Olibares bertsolariak jaia girotzen.

**ZEZEILAK 20
ARRATIA**

Aratusteak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**ZEZEILAK 21
ARRATIA**

Aratusteak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**ZEZEILAK 24
IGORRE**

19:00etan, hileko azken barikua, presoen aldeko konzentrazioa.

20:00etan, *Biladi Hadi* liburuaren aurkezpena Asier Lopezegaz Kultur Etxean.

**ZEZEILAK 25
IGORRE**

22:00etan, zinea *Un lugar para soñar* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Zugatx eguna.

**ZEZEILAK 26
BEDIA**

Alto Campoora eski urteerea umeentzat.

IGORRE

20:00etan, Txalo produkzioak-en eskutik


Hil arte bizi antzezlana Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etan, Lemoa Txirrindulari Elkartearen urteerea BTT 25 km. Gaztetxe ondoko aparkalekuan.

**ZEZEILAK 29
BEDIA**

18:00etan, Umeen Irakurle Klubaren lehenengo saioa. Idazlea: Xabier Mendiguren, liburua: *Egun bat Petre Romanescuren* bizitzan.

**Persepolis hilaren 23an 20:00etan Lasarte Aretoan**

Komiki moduan sortutako istorioetan oinarritutako pelikulak ekarriko ditu Igorreko zineklubak zezeilaren hiru eguenetan: 9an, 16an eta 23an, hain zuzen be. *Persepolis* izango Azkenekoa, Frantzia eta Estatu Batuetako koprodukzio bat da, Vicent Paronnaud eta Marjane Satrapiren zuzendaritzapean 2007 urtean egindakoa. Bertan, Persepolis neska iraniar baten istorioa kontetan da, iraultza islamiarretik gaur egunera arte. Istoria, fundamentalistak poterera iritsi, andrak beloa jartzera behartu eta milaka persona espetxeratzen dituen hasten da. Protagonista oso azkarra eta *punka* da eta ABBA eta Iron Maiden deskubriduten ditu Iran eta Irak arteko gerra biziten dauan artean. Nerabezaroan Europara bidaltzen dabe. Hemen, beste kultura batzuk bereagaz alderatuteko aukerea izango dau.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**ROMER DUO PLUS-ISOFIX
SALGAI**

Grupo 1 (9/18 Kg). 2. eskuko autorako umeen segurtasun aulkia. Grisa/baltza. 200 €. Egoera oso ona (merkaduan 400 €). 626 385 581.

DANERIK**AURRESKUA IKASI GURA DOT**

Aurreskuaren Kontrapasa ikasteko eskolak hartzea gura dodaz. Zapatu arrasti edo domekan izan beharko litzateke. Nonor eskolak emoteko prest badago, honako telefono-zenbaki honetara deitzea dauka: 659 059 194.

GARAJEA ALOKAIURUAN

Igorreko Bidebarri kalean 6-7 zenbakietan garajea alokairuan. Interesdunak deitu: 615 731 182 telefonora.

ESKOLAK EMOTEN DODAZ

DBHko, Batxilergoko (ikasgai guztiak) eta Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoko eskolak emoten dira. Deitu 659 729 398

telefonora.

**SENEGAL BIZIKLETAZ ASTE
SANTUAN**

Pedaleatzen Afrika Beltza ezagutzeko. Alforjakaz zikloturismoan zaleak diranentzako.

Martiazen 31tik apirilaren 15era. Eguneko 45 km. Programa aktiboak 1.250 €. Hegaldia norberaren kontura. Info+: xauenbidaiak@gmail.com edo www.xauenbidaiak.com.

LOKALA ALOKATZEN DOT

Lonja edo lokal bat alokatzen dot Diman. Deitu telefono honetara 616 813 747.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Hil arte bizi* antzezlanerako.


Ainhua Zuluaga (Igorre)
Rosana Pedrosa (Areatza)

HIL arte BIZI

2

Igorreko Udalak emondako Gontzal Mendibilen CD bana.

Itsaso Arrizabalaga (Igorre)
Joseba Olibares (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Kokomarro. Begiratu. 2.- Kimu. Aupa. 3.- Birritan, barrearen onomatopeia. Zuztar. 4.- Maite. Konsonante bat. 5.- Ulertu. 6.- Bat erromatar. Zekalegaz egindako ogia. 7.- Berandu. Birritan, txori kantari. 8.- Andrazkoen izena. Bezala, legez. 9.- Musika nota. Anbotoko dama.

GOITIK BEHERA

1.- Eterra, begikoa. Haran. 2.- Aitareneko ama. Nire. 3.- Behiaren hotsa. Gorputzaren barrutik dabilen isurkaria. 4.- Uranioa. Gaixotu. Mila erromatar. 5.- Dana dala. Musika nota. 6.- Sudur. Tarrantada. 7.- Bakazino. Kausa, kereila.

Topau bakearen nobel saria lortu daben 7 persona honeen abizenak: Henry, Andrey, Teresa, Lech, Desmond, Dalai, Mijail.

A	R	T	U	H	O	D	E	S	A
D	E	C	A	L	C	U	T	A	R
E	R	R	E	K	A	M	U	K	O
L	K	I	L	I	N	E	T	O	Z
I	I	M	O	W	X	V	U	S	A
A	S	A	J	A	R	O	V	U	M
U	S	A	B	L	O	T	E	G	E
J	I	N	K	E	A	U	X	E	F
A	N	U	L	S	A	M	E	N	I
L	G	O	A	A	Z	T	A	M	U
O	E	T	E	B	A	P	I	A	R
A	R	O	G	E	K	E	Z	U	A
D	O	R	A	G	O	S	E	B	I
G	O	R	B	A	C	H	O	V	E
O	S	T	A	M	U	W	I	N	D

AKIMIKO

Iman Olatu



Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea

Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta
649 979 112

begitu@topagunea.com

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskolaraz zain erdiaraz
Gabe, 10 - 48140 Igore (Bizkaia)
telefonoa 94 631 54 31 Faxa 94 631 70 83
e-posta: urakau@euskalnet.net

begitu
amata ubide zerbeto

NAIARA Hertz Klinika

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igore
94 631 52 26

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 630 40 94
Esposizinoa eta
fabrikea Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

KIRRU ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00

FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
E. Agirre, 7
48140 Igore (Bizkaia) Tfnoa: 94 633 64 79

INCOESA

Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

Bar Restaurante
Montero

Eguneko menua
euskarri sukaldaritza,
sukaldaritza bolibiarra
eta brasildarra

Zelai 19 - Arantzazu - 619 903 653

JANIRE LOPEZ

"Arratiako alkarteak lan handia egiten dabe"

Janire Lopez Igorreko Kultur eta Kirol teknikaria da. Kultur Etxekoa bere lanaren zati bat baino ez da, baina horrek laneko denpora gehiena erosten deusala dino. Kulturearen gestioaren bere lanaren zehaztasunak emon deusaz BEGITURI.

Erredakzioa

Arratian bizitza kultural handia dago, ezta?

Bai. Nik uste dot hau herri txikietan uri handietan baino gehiago nabaritzen dala. Alkartegintza potenteagoa izaten da normalean, batuago dagoalako jentea, gehiago ezagutzen daualako alkar eta gero gainera, hemen herri txiki asko dagozanez eta danak oso hurbil... sare asoziatiboa oso inportantea da.

IKEk eskeintza handia dauka: zinea, ikastaroak, erakusketak...

IKE asmo horregaz sortu zan. Arratian beharizana egoan. Alkarteak osotuten daben mobimentua oso garrantzitsua da, baina hori osotuteko administrazioak hutsuak bete behar ditu. Alkarteak ekonomia aldetik ez dagoz administrazioa dagoan mailan eta antolatuten dituen gauzak, batez be konsumoari begira, urriagoak izaten dira. Euren lana, formazioan edo sustapenean zentretan da, baina konsumoan fomato txikiko gauzak antolatzen ditue batez be. Hor instituzinoa egotea beharrezkoa da, alkarteak egiten daben lan hori osotuteko, horregaz zirkulua zarratuteko. Formazioa, konsumoa eta sustapena batera bultzatu behar dira, arte edo kulturako edozein disziplinatan, hasten dagozanen sustapen hori, bai alderdi ekonomikotik, bai beste bide batzuk erabilia babestu behar dau administrazioak.

Nik uste dot Arratia oso egoera onean dagoala: alkarteak lan handia egiten dabe, asko dira eta esparru askotara helduten dira. Administrazioa horreek helduten ez diran lekuetara heldu behar da.

Zelan egiten dozu behar? Zein puntutaraino alkarteai erantzuten eta zein puntutaraino plan bateri jarraituten?

Kultura eta kirol teknikaria izan arren, kultureak erosten deusta denpora gehien eta kulturearen barruan Kultur Etxearen gestioak. Nire eta nire ekipoaren asmoa, ze ekipo moduan egiten dogu behar, modu estrategikoan lan egitea da: helburu batzukaz, helburu horreetan egon daitela argi zeintzuk diran epe labur eta zeintzuk epe luzerako, zeintzuk diran egin behar diran ekintzak... eta perspektiba orokor luze eta orekatu bategaz lan egitea. Baina eguneroko lanean hori gatxa da.

Eguneroko lanean errealidadea oso desbardina da. Momentuan sortzean diran gauzai erantzun egin behar jakie. Horrek askotan ez deusitu ixten beste gauzai behar dan beste denporea emoten modu ordenau baten lan egiteko.

Hori da nire asignatura pendientea: inportantea urgentearen parean ipintea.

Zer da jentek gehien eskatzen dauana kultura konsumorako? Zuzeneko ikuskizunak nahiko arrakastatsuak izaten dira normalean. **Bardin kontzertua zein antzerkia izan?**

Antzerkiak orokorrean ikusle gehiago izaten ditu musikak baino. Baina orokorrean, jentea zuzeneko ikuskizunakaz identifiketan da batez be.

Ze ikastaro dagoz orain?

Beti saiatzen gara disiplina guztiak betetzen. Batzuk aisialdiagaz zerikusi handiagoa daukie kultureagaz baino. Honeek normalean Tai Chi eta jantza afrikarrak izaten dira, urtero manteniduten dira, erabiltzaile egonkorrek daukiezalako, oso fidelak.

Beti saiatzen gara argazkigintza ikastaro bat egiten, zinearen inguruko zeozer, eta baita arte eszeniko eta plastikoen inguruko ikastaroak. Oraingoan, esaterako, antzerkigintza ikastaroa eta arte aplikatuen gaineko ikastaroren bat eta pinturari buruzko zehatzago bat daukaguz.

Eta orain dala urte birik hona, euskera arloagaz batera, literaturari be zati bat emoten deusagu: irakurleen txoko bat sortu dogu liburuak eta komentetako. Eta pasa dan urtean nobedade moduan umeentzako ikastarorik ez egoenez, zirku ikastaroa sortu genduan umeak be apurka-apurka hona erakarteko.

Ze erizpide erabilten dozu ikastaro bateri, erakusketa bateri edo beste edozein ekitaldiri baietz edo ezetz esateko?

Programazio Batzorde bat dago. Batzorde horretara joaten diranak gura dabezan gauzak proposatzen dabez. Zuzeneko ikuskizunak daukie programazio erizpideak ondoen zehaztuta. Saiatzen gara edade guztiertzako eta disiplina guztiertzako ikuskizunak ekarten. Nire eginbeharra da proposamenak ikuspegi orokorra emonez bideratzea.

Ikastaroetan ez dagoz hain ondo zehaztuta erizpideok, baina badao erizpide bat erabakiorra izaten dana: erabiltzaileak daukiezan ikastaroak mantenidutea.

Erakusketetan, gatxagoa izaten

"Zuzeneko ikuskizunak nahiko arrakastatsuak izaten dira normalean"



da. Erakusketen ehuneko oso altua ez da izaten geuk programautakoa, jentek eskatutakoa baino. Baina badao asmoa, ikastaro eta erakusketarako programazio erizpideak idatziz jasoteko eta denporan tarte batzuk gordetzeko, Kultur Etxeak zuzenean antolatutako erakusketa profesionalak bultzatzeko. Horretarako interesgarri ikusten da kanpo aholkularitza.

Beste gauza bat be bada programetako momentuan kontuan hartu beharrekoa: oso diru laguntzen menpekoak garala. Igorre herri txikia da, diru laguntzak ingrosioen ia % 50 suposatzen dabe eta diru laguntza horreei etekin gehiago aterateko batzuetan amore emon behar izaten dogu programazioan.

Kirol teknikaria be bazara, zein da zure lana horretan?

Nire lana da kiroldegi enpresa eta arduradunaren jarraipena egitea. Kulturearen bardin-bardina izan beharko litzateke: kirola Igorren ikuspuntu estrategiko batetik garatzea. Hau da, urteko helburu batzuk ipini, plangintza orokor bat prestatu edo pentsau... baina errealidadean ez da holan izaten. Kultur Etxeko lana

eta eraikinak berak, kontratazioak eta kiroldegiko kontu administratiboak lan handia suposatzen dabe, eta horretara mugatzen da askotan nire beharra. Asmoa badao, jakina, denpora hobeto antolatu eta gauza garrantzitsuai lehentasuna emoteko.

Igorren kirol eskaerea kultura bestekoa da?

Udalak kiroletan egiten dauan eskeintza ikastaroetan zentretan da. Formazioan. Gainera edade batek behera, ugerketa kenduta, beste gehiena alkartearen bidez egiten da. Ez, ez da bardina.

Hemen alkarteak egiten dabenetik aparte, kiroldegiko ikastaroak dira Udalak antolatzen dituan bakarrik. Udalak kirol ekitaldiak bultzatu egiten ditu, zuzenean antolatu baino.

Zeintzuk dira igorretarrai gehien gustetan jakiezan kirolak?

Umeak gehien egiten dabena ugerketea eta futbola dira. Futbola oso oso modan dagoalako eta uger egiten lehenago edo beranduago ikasi egin behar dalako.

Nagusien kasuan, kiroldegiko ikastaroen artean Pilates da momentu honetan gehien eskatzen dana.

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskerea eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean eta Arratia inguruko Hiztegia doban

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ataratako produktuak. Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€

Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48942 Artea